

## **Funtsezko Jarduerak**

Gure funtsezko jarduera jendea lortzea da, gure torneoan parte hartuko duena eta gure hurrengo torneoak jarraituko dituena. Gure helburua bideojoko talde bat sortzea da, eta gero hori kudeatzea. Azkenean ez dugu enpresa normal batek duen ekoizpenik, gure diru sarrerak babesleek ematen dizkigutelako. Ekoizpena taldea sortzea eta hauei behar dutena ematea izango litzateke, hauek egin behar dutena kudeatzea eta beste torneo batzuetara apuntatzea.

Azkenean guri sortzen zaizkigun arazoak, jokalariei sortzen zaizkien berdinak dira, torneo batean edo beste ekintza batean sartzean sortu daitezken arazoak. Horiek konpontzea izango litzateke gure lana. Horretaz gain taldeari buruz propaganda egin beharko genuke, web orri bat sortu jokalariei buruz informazioa emateko eta bertan jolasten dituzten bideojokoen bideoak igotzeko, nola jolasten duten ikusten, hainbat joku ezberdin... Ez legoke gaizki beste sare sozial desberdinak erabiltzea jarraitzaileak berak izateko gure taldea zabaltzen dutenak. Sare sozialen bidez jarraitzaileek partekatuko dituzte jokalarien informazioa.

Baina hau dena aurrera eramateko oso funtsezkoa da lehen torneoa ondo irtetea, partizipazio tasa altua izatea, hala gure taldea konpetitiboagoa izatea lortuko genuke, jokalaria onenekin eta munduan zehar ezagutua izana.